

zakilixut

© Olariagak



Miel Anjel Elustondo | GASTEIZ

ATZEKOZ AURRERA



MIREN SAEZ

Liburu zahar ugari daude salgai Gasteizko Liburu Zaharren Azokan.

Horiekin batera, euskal literaturaren historian izen handiko liburu direnak: denen gainetik, Larramendiren *Diccionario Trilingüe*-a (1853), azokan den alerik garestienetarikoa: 65.000 pezeta. Eta, anabasa handian, han eta hemen nahas-mahas, beste zenbait perla: *Mayatz-illeraco Berba-aldijac Marquinaco arima-zai* Juan Jose Moguel Jaunac itzcribatubac, *Biar dan bai-emonaz*. Argitalpena, Tolosakoa: «Eusebio Lopez-en moldizteguia, 1885garren urtean». Edo Eusebio Maria Azkueren *Parnasorako bidea*, 1896koa. Eta Txomin Agirreren *Garoa* —Txiki margolariaren azal eta guzti—, bigarren edizioan (1934), nahiz eta saltzaileak lehenengo balitz bezala saldu nahi izan ia 7.000 pezetan. Edo euskaraz lehen bidaia-liburu moderno litekeena, Itxaropena Argitaldariaren eskutik argitaratua 1961ean: Agustín Anabitarteren *Aprika-ko basamortuan*, Aljerian egindako bidea kontari, argazkiz horniturik. Eta Goitxeren *Fableac edo aleguiac Lafontenenetarric Berechiz hartuac*, Hordagoren Klasikoak bilduma beltzean. Eta hamaika ale eder, liburu zaharren azokan ez baina liburutegi nazionalen eta biblioteka espezializatueta beharko luketena. Sancho el Sabio Fundazio-ko Jesus Olaizola biziko balitz!

Tartean, jatorri oso ageriko liburuak dira: «Residencia Jesuitas-Biblioteca-SS» zigilua jota duenen bat, eta, besteren bat, «Ejemplar gratuito. Prohibida su venta» (Doako alea, galarazita dago saltzea), baina salgai, 8.000 pezetan!, hilaren 10 arte.

Andima Ibiñagabeitia, Jokin Zaitegi eta Nikolas Ormaetxea *Orixe* bildu ditu bere baitan Gasteizko Liburu Zaharren Azokak. Irakurle liburuzaleak modu onean ditu bertan Patri Urkizuk behin *Hirutasun Deun* (Andima, Zaitegi, *Orixe*) izendatu zuenaren lanak, Posta kaleko *stand*-etan barreiaturik.

Azokako liburu askoren artean gorderik da Ibiñagabeitiak 1953an Parisen argitara zuen euskarazko metodoa: *Nuevo método de euskera básico*, liburu txikia, 2.000 pezetan saltoki batean, mila duroan bestean. Ezinez dator Andima: *Norbait*.

«Izkera arrotzetan egin ikas-bideen ariara antolatua dator, irudiz apaindua. 600 itz, gutxi-gora-bera, dakartzki, lagunarteko euskera ikasteko aski».

Jokin Zaitegi ere ez dabil Andimagandik aparte. Salgai da *Sopokel'en antzerkiak*, 1946an Mexikon argitara emandakoa. Eta, han nonbait, Orixeren *Eus-*

kaldunak, Justo Mokoroaren edizioan. Eta Buenos Airesetan argitara zuten *Juañixio* ezaguna (1946), Irazusta'tar Jon Andoniren originala.

Izen handiko liburuak bi sosetan salgai

Larramendi, Mogel, Ibiñagabeitia, Zaitegi, Orixe, Azkue eta beste askoren lan originalak